BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

3683

EBAZPENA, 2009ko urtarrilaren 12koa, Ingurumen sailburuordearena, burdin grisa eta nodularraren urtze-jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua emateko dena, Durangoko (Bizkaia) udalerrian Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 29an, José Miguel Moratinos jaunak, Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2006 Legeak xedatutakoaren arabera, Durangoko (Bizkaiko lurralde historikoa) udalerrian pieza handi eta ertainen burdin grisa eta nodularraren urtze-jarduerarako. Ondorengo dokumentu teknikoak erantsi zitzaizkion eskaerari: Memoria teknikoa, Eranskinak eta Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua).

2007ko urtarrilaren 23an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran eskuhartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez. Zehazki, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari, Iparraldeko Ur-konfederazioari, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eta Durangoko Udalari kontsultatu zien.

2007ko urtarrilaren 30ean, sustatzaileak jarduerak planeamenduarekin duen bateragarritasunari buruzko udaleko hirigintza-txostena gehitu zion espedienteari.

2007ko apirilaren 12an, Ingurumen Organoak agiri gehigarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta agiri horiek 2007ko uztailaren 23an aurkeztu ziren.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapideak amaitu ondoren egiaztatu zen bi alegazio-idazki aurkeztu zirela. Ebazpen honen I. eranskinean bildu dira, laburtuta.

2008ko apirilaren 18an, sustatzaileak agiri osagarriak gehitu zizkion espedienteari.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko ekainaren 16an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Durangoko Udalari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz. Halaber, 2008ko azaroaren 13an, Iparraldeko Ur-konfederazioari txostena eskatu zitzaion.

2008ko azaroaren 24an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresaren esku utzi zen, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako Ebazpen-Proposamena gehituz. Ez zen horri buruzko komunikaziorik jaso.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: ibilgura eta saneamendu-sistema orokorrera isurtzeko baimena, hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Durangoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan da teknika onenen erabilera. Zehazki, Europako Batzordearen Agiriaren (BREF) edukia izan da kontuan (Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry), 2005eko maiatzekoa.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailak 2008ko azaroaren 24an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Durangoko udalerriko (Bizkaiko Lurralde Historikoa)Tabira kaleko 39. zenbakian egoitza soziala duen eta IFK: F-48032049 zenbakia duen Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea, burdin grisa eta nodularraren urtze-jarduerarako, eta Ebazpen honen Bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Era berean, Ingurumeneko Baimen Bateratu hau eman da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 19. artikuluaren arabera, Arroko Erakundeak landu beharreko txostenaren emaitzei kalterik egin gabe.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinean jasota dago. Hain zuzen ere, 2.4 kategorian, «Eguneko 20 tona baino gehiago produzitzeko ahalmena duten burdin-metalen galdaketak».

Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresa Durangoko udalerriko (Bizkaiko lurralde historikoa) Tabira kaleko 39. zenbakian kokatzen da. Iparraldean Tabira (Durango) Izurtzarekin (Durangoko saihesbidea) lotzen dituen eskualde-errepidea du mugakide, Hegoaldean Mañaria ibaia, Ekialdean Tabirako parkea eta Mendebaldean futbol-zelaia.

Urteko ekoizpen-bolumena 16.000 tn burdinurtu ingurukoa da.

Ekoizpen-prozesua honako etapa hauek osatzen dute:

● Lehengaiak hartu eta biltegiratzea: lehengai gisa txatarrak eta lingoteak erabiltzen dira, zuloetan biltegiratzen dira estalpeko instalazioaren kanpoaldean.

● Galdaketa: 20 tn-ko ahalmena duten bi labe birakaritan. Horietan, lingoteak, txatarra eta instalazioetan sortzen diren beste burdina-materialak sartzen dira.

● Isurtzea: urtze-zikloa amaitzen denean, urtutako materiala zalira husten da. Aldi berean, labean galdaren konposizioaren lehen azterketaren arabera, konposizioa doitzeko beharrezko ferroaleazioak edo inokulatzaileak gehitzen zaizkio zaliari.

● Moldekatze eta argintza: poliestireno-ereduak hartzen dira oinarri ekoizpen bateraturako eta egurrezkoa sail-ekoizpenerako. Ereduak hartu ostean, moldekatze eta argintza prozesua burutzen da eta moldeak kaxatan kokatzen dira. Moldea eta arra egiteko harea, erretxina eta katalizatzailearen nahasketa prestatzen da nahasgailuan. Eskuz trinkotu ostean, arrak zein moldeak polimerizatzen dira erresistentzia egokia lortu arte. Isopropil-alkoholetan diluitutako pinturarekin estaltzen dira urtzen den bitartean bat-bateko erreakzioak ekiditeko.

● Desmoldekatzea: piezak solidotu eta hoztu ondoren, parrilla bibratzaile batera eramaten dira. Han, piezak soberan dituen harea eta beste burdina-materia batzuk bereizten dira. Pieza akasdunak txatarra-parkera bidaltzen dira.

● Harea berreskuratzea: sobera den harea berreskuratzaile mekanikotik pasatzen da, prest dagoen harearen partikula metalikoak bereizi eta berriz erabiltzeko.

● Granailatzea: piezak, hareatik bereizten direnean, altzairu-bolak erabiliz granailatze bidez garbitzen dira.

● Bizar-kentzea: bizarra ezabatzeko sobera den materiala ezabatzen duten disko urratzaileak erabiltzen dira.

● Pintatzea: zenbait piezak epoxi pinturadun akabera dute.

● Bidalketa: Piezak egiaztatzen direnean, bezeroari bidaltzeko bildu egiten dira.

Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak bi isurtze-puntu ditu: bata ibilgura, euri-urak eta lehorgailuaren kondentsatuak jasotzen dituena, eta bestea kolektorera, sanitarioak, zepak hozteko guneko urak, hozte-dorreen purga eta husteak eta euri-ur zikinak jasotzen dituena.

Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak isuri atmosferikoen bi foku zarratu ditu, urtze-prozesuan zehar, nodulizazio-labeek, desmoldekatzeak eta granailatzeak eta harearen berreskuratze mekanikoak sortutako isuriak jasotzen dituztenak.

Bestalde, isurtze barreiatu etenduak daude «Moldekatze eta argintza» eta «Bizar-mozte» gunean. Instalazioen kanpoaldean isurtze barreiatu etenduak daude lehengaien manipulazioak direla eta.

Jarduera garatzean hondakin arriskutsuak zein hondakin ez-arriskutsuak sortzen dira. Makinak eta zerbitzu orokorretako ekipoak garbitzeko prozesuetan hondakin arriskutsuak sortzen dira. Hondakin ez-arriskutsuak zenbait etapatan sortzen dira, besteak beste: moldekatzea, hareak berreskuratzea, piezen akabera (granailaren hautsa), urtze eta moldekatzea (zepa \ hareak) eta paketatzea eta bidalketa (egurra, papera eta kartoia) eta mantentze-lanen operazioak (erregogorrak).

Proiektuak, aplikazioko BREF agiri nagusian «Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry» adierazten denez, Teknika Erabilgarri Onenak (TEO) izan daitezkeen ondorengo neurriak ditu, besteak beste: txatarra estalpean biltegiratzea, txatarra-itzuleren barne-birziklapena, harearen birsorkuntza, granaila eta desmoldekatzeak sortutako isurtzeak hartu eta araztea.

Bigarrena.– Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak Durangoko udalerrian sustatutako burdin grisa eta nodularraren urtze-jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak ezartzea.

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Pieza handi eta ertainen burdin grisa eta nodularraren urtze-jarduerarako Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresaren instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurketek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gainditukо.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresaren instalazioak foku hauek ditu, indarrean den araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera	Barruko diametroa	Katalogazioa	UTM koordernatuak	
					Taldea	X	Y
1	48014879-01	Nodulizazio, desmoldekatze eta granailatze labeen xurgapena	15,7m	1,6m	B	529942.1	4778639.38
2	48014879-02	Harea berreskuratzaile mekanikoaren xurgapena	9,4m	0,785m	C	529873.07	4778565.44

1. fokuak larrialdietarako 2 irteera mugatu ditu (by-pass delakoen antzekoak). Foku horretako isuriak instalazioaren funtzionamendu orokorraren % 5 baino gehiagora iristen badira edo urtean 12 aldiz baino gehiagotan gertatzen badira ordubete baino luzeagoko isuriak, fokua erregulatzeko eskatuko da.

Foku horiez gain, isurtze barreiatuak dituzten ondoko iturriak daude:

● «Moldekatze eta argintza» eta «Bizar-mozte» guneko isurtze barreiatu etenduak. Zentzu horretan, aipatu prozesu horietan sortzen diren isurtzeak hartu eta kanporatzeko proposamena aurkeztuko du.

● Instalazioaren kanpoaldean isurtze barreiatu etenduak, (magnesioa bezalako) produktu kimikoarekin egindako manipulazioak direla eta. Isurtze horiei dagokienez, aipatu isurtze barreiatuak gutxiagotzeko proposamena aurkeztuko da.

B.1.3.– Gehienez bota daitekeen kutsagarri-kantitatea.

a) Instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1. fokua Nodulizazio, desmoldekatze eta granailatze labe birakarien xurgapena	Partikulak guztira (PG)	20 mg/Nm^3
	Sufre dioxidoa (SO_2)	130 mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
2. fokua Harea berreskuratzaile mekanikoaren xurgapena	Partikulak guztira (PG)	150 mg/Nm^3

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25 gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

B.1.4.– Gasak bildu eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.2 atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximiniek, Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Agindua, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoa n ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntura sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute. L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetarako inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliozkotasuna justifikatzea eskatuko da.

Sustatzaileak isurtze barreiatuak hartu edota gutxiagotzeko aurkezturiko aukera desberdinak identifikatuko ditu, hartutako erabakiaren justifikazioa aurkeztuz.

B.2.– Saneamendu-sarera eta ibilgura isurtzeko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Burdinurtzea.

Jarduera-taldea: 2.

Mota-taldea-EJSN: 1- 2- 27.51.

Isurketa -puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Euri-ur zikinak	Patioko euri-uren isurketa	Durangoko udal saneamendu-sarea, Iurretako Araztegiaren Saneamendu Sare Orokorrera konektatuta	---	---	X: 529.919,18 Y: 4.778.700,54
	Industria-urak	Zepen hoztea				
	Ur sanitarioak	Bulegoetako etxe-erabilera				
2	Ur sanitarioak	Tailerreko etxe-erabilera	Durangoko udal saneamendu-sarea, Iurretako Araztegiaren Saneamendu Sare Orokorrera konektatuta	---	---	X: 529.885,74 Y: 4.778.602,2
3	Industria-urak	Berreskuratzaile mekanikoaren hozte-zirkuituaren purgatze eta gainezkaldiak	Durangoko udal saneamendu-sarea, Iurretako Araztegiaren Saneamendu Sare Orokorrera konektatuta	---	---	X: 529.861,49 Y: 4.778.579,66
4	Industria-urak	Konpresoreen lehorgailuaren kondentsazioa	Mañaria ibaia	Ibaizabal	I	X: 529.931,25 Y: 4.778.591,18

Halaber, teilatutik datozen euri-uren 12 isurketa-puntu daude.

B.2.2.– Gehienez isuri daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: Patioko euri-uren isurketa, zepen hoztea eta bulegoetako etxe-erabilera.

Eguneko gehienezko bolumena	2,5 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	545,6 m^3/urte

b) 3. isurketa: Berreskuratzaile mekanikoaren hozte-zirkuituaren purgatze eta gainezkaldiak.

Eguneko gehienezko bolumena	0,9 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	209 m^3/urte

c) 4. isurketa: Konpresoreen lehorgailuaren kondentsazioa.

Orduko puntako emaria	0,0017 m^3/h
Eguneko gehienezko bolumena	0,04 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	8,6 m^3/urte

B.2.3.– Gehienez bota daitekeen kutsagarri-kantitatea.

a) 1, 2 eta 3. isuriak.

Saneamendu-sarera eginiko azken isurketak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kolektorera isurtzeko Araudian adierazitako mugak eta baldintzak bete beharko ditu.

b) 4. isurketa: Konpresoreen lehorgailuaren kondentsazioa.

Ibilgurako isurien ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira bakarrik, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin:

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
Hartutako pH-a	5,5 eta 9,5 artean
OEK	<40 mg/l
Solido esekiak	<20 mg/l
Olioak eta koipeak	<5 mg/l

Tenperatura: ubidearen tenperatura ezin da 3 ºC baino gehiago areagotu.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Ezkutuko purgaketa izango liratekeen terrazen, gordailuen eta abarren gainezkabideen isurketak ez dira baimenduko. Gertatuz gero, jakinarazi beharko dira eta dagokien isurketarako baimena eskatu beharko da.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Aitzitik, titularrak kasuan kasu tratamendu egokia egin beharko du, isurketaren ondorioz aipatutako kalitate-helburuak urratzen ez direla ziurtatzeko.

Baimen honek baldintza honetan berariaz aipatutako substantzien isurketak bakarrik barne hartzen ditu eta, batez ere, Uraren abuztuaren 2ko 29/1985 Legeko Atariko, I, IV, V, VI eta VIII. Tituluak garatzen dituen Jabari Publikoko Urguneen Erregelamendua onartzen duen apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretua aldatzen duen maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarriak aipatzen dituen substantzia arriskutsuak.

B.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek honako jarduera hauek barne hartuko dituzte funtsean: Instalazioan dauden teilatutik jaisten diren euri-uren ezaugarriei buruzko azterketa aurkeztuko da. Azterketa horrek, gutxienez, analisi bat, isurketa-puntu bakoitzarena eta Erakunde Kolaboratzaile batek egina eta drainatze-sareen eta horietako bakoitzak hartzen duen

azaleraren planoa jasoko ditu. Egokitzapen-plana aurkeztuko da, lehen aipatutako azterketan kutsagarri gisa zehaztutako euri-uren aurretiazko tratamendurako exekuzio-epe zehatzak jasoz.

Bukaerako isurketa egiteko kontrolerako kutxeta izango da. Kutxetak, isurketen lagin adierazgarriak lortzeko eta arazketa-instalazioen errendimendua egiaztatzeko beharrezko ezaugarriak bete beharko ditu. Kutxetak sarbide zuzena duten lekuan kokatuko dira, beharrezkoa denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Uraren Euskal Agentziak ikuskatu ahal izateko.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Zerbitzuko aire-konpresoreek galdaratxoak purgatu ondoren sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

B.2.5.– Isurien Kontrol-kanona.

Uraren Legearen Testu Bateginaren 113. artikulua eta Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren (606/2003 Errege Dekretua) 291. artikulua aplikatuz, honakoa da isurien kontrol-kanona:

(IKK): Isurketen Kontrol Kanona= $B \times P_u$.

$P_u = P_o \times K_m$.

$K_m = K_2 \times K_3 \times K_4$.

Honela ulertuta:

B = Isurketa baimenduaren bolumena (m^3/urte).

P_u = Isurketaren kontroleko prezio unitarioa.

P_o = Oinarrizko prezioa m3-ko isurketaren izaeraren arabera.

K_m = Isurketaren maiorazioko edo minorazioko koefizientea.

K_2 = Isurketaren ezaugarrien araberako koefizientea.

K_3 = Isurketaren kutsadura-mailaren araberako koefizientea.

K_4 = Ingurune hartzailearen ingurumen-kalitatearen araberako koefizientea.

4. isurketa: Konpresoreen lehorgailuaren kondentsazioa.

B: Bolumena: P_o: Hondakin-ura: Hirikoa/Industriakoa K_2: 1./2./3. mota, substantzia arriskutsuekin K_3: Tratamendu egokia/Tratamendurik gabe K_4: Kategoria-eremua: I K_4: Kategoria-eremua: II K_4: Kategoria-eremua: III	B = 8,6 m^3 / urte P_o = 0,03005 €/m^3 K_2 = 1,0 K_3 = 0,5 K_4 = 1,25

$K_m = 1,0 \times 0,5 \times 1,25 = 0,625$.

$P_u = 0,03005 \times 0,625 = 0,01878$ euro/m^3.

Isurien kontrol-kanona = 8,6 × 0,01878 = 0,16 euro/urte.

B.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketa saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Durangoko Udalean.

B.3.1.– Hondakin Arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

- 1. prozesua: «Makinen eta tresnen garbiketa».
  - 1. hondakina: «Disolbatzaile agortuak».
    - Identifikazioa: B-48032049 /484074 / 1/1.
    - Hondakinaren kodea: Q07//R13//L05//C41//H3b/H5//A231//B0005.
    - EHZ: 140603.
    - Urtean sortutako kantitatea: 220 kg/urte.

Makinak eta ekipoak garbitzerakoan sortzen da; disolbatzaile erabilia da.

● 2. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Aerosol hutsak».

– Identifikazioa: B-48032049 /484074 / 2/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S-G36//C41/43/51//H5//A231//B0019.

– EHZ: 160504.

– Urtean sortutako kantitatea: 20 kg/urte.

Ontzi hutsak bildu eta multzokatzekoan sortzen da; olioak, konposatu aromatikoak eta disolbatzaileak eduki dituzten aerosolak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 2. hondakina: «Fluoreszenteak».

– Identifikazioa: B-48032049/484074/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H614//A231//B0019.

– EHZ: 200121.

– Cantidad anual generada:5 kg/año.

Merkurioa duten lanpara erabiliak birjartzeko eragiketetan sortzen da.

Hondakinarentzat identifikatu den zonan jasotzen da, hondakin arriskutsuen biltegian.

○ 3. hondakina: «Bustitako trapuak».

– Identifikazioa: B-48032049 /484074 / 2/3.

– Hondakinaren kodea: Q5//D15//S09//C51/41//H05//A231//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 120 kg/urte.

Xurgatzaileak eta ehunak bildu eta multzokatzean sortzen da; olio eta disolbatzailez bustitako trapuak dira, material xurgatzailea.

Hondakinarentzat identifikatutako bidoian jasotzen da sortzen den postuan edo postuetan. Behin bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 4. hondakina: «Pilak».

– Identifikazioa: B-48032049/484074/2/4.

– Hondakinaren kodea: Q06//R13//S37//C11//H06//A501//B0019.

– EHZ: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: 20 kg/urte.

Pila agortuak birjartzeko eragiketetan sortzen da, eta eraginkorragoa denez, taldeka biltzen dira; merkurioa, kadmioa eta beste metal-oxido batzuk dituzten pilak dira.

Hondakinarentzat identifikatutako edukiontzian biltzen dira berariaz adierazitako zona batean.

○ 5. hondakina: « Envases metálicos contaminados».

– Identifikazioa: B-48032049/484074/2/5.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41-51//H5//A231//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 650 kg/urte.

Ontzi hutsak jaso eta pilatzerakoan sortzen da; olioak eta disolbatzaileak eduki dituzten metalezko ontziak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 6. hondakina: «Kutsatutako plastikozko ontziak».

– Identifikazioa: B-48032049 /484074 / 2/6.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/C51//H05//A231//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 25 kg/urte.

Ontzi hutsak jaso eta pilatzerakoan sortzen da; olioak eta disolbatzaileak eduki dituzten plastikozko ontziak dira.

Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

○ 7. hondakina: «Pintura katalizatua».

– Identifikazioa: B-48032049 /484074 / 2/7.

– Hondakinaren kodea: Q08//D15//S12//C18/H05//A231//B0019.

– EHZ: 080111.

– Urtean sortutako kantitatea: 500 kg/urte.

Pintatze azpi-prozesuan sortzen den hondakina biltzerakoan sortzen da; beruna du.

Hondakin horrentzat identifikatutako edukiontzian biltzen da sortzen den lekuetan, eta bete ondoren, hondakinen biltegira eramaten da.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten hondakin-tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak jasotzen dituzten ontziek, hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa 1988ko uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Berariazko hondakin sanitarioak (II. taldea) manipulatu, ontziratu, etiketatu eta biltegiratzeko baldintzak Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzen dituen martxoaren 26ko 76/2002 Dekretuan eta hori garatzeko araudietan ezarritakoak izango dira.

e) Gainerako hondakin arriskutsuak ezin izango dira 6 hilabete baino gehiago gorde.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakin-kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak.

k) Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak poliklorobifeniloak dituzten edo izan ditzaketen gailuak dituen bitartean, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan eta hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretuan adierazitako baldintzak.

l) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

m) Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

n) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

o) Aurreko f), g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), m) eta n) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

p) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egitean segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.3.2.– Hondakin Ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena (t/urtea)
Xehekiak	100208	Labe, granailatze, desmoldekatze eta nabe nagusiko arazketa-sistema (mahuka-iragazkia)	200
Zepak	100903	Urtzea (zepak kentzea)	2640
Xehekiak	100908	Berreskuratzaile mekanikoaren arazketa-sistema (mahuka-iragazkia)	1210
Hareak	100908	Desmoldekatzea	497
Poliestirenoaren hondarrak	100999	Moldekatzea (poliestireno-ereduak)	12
Disko urratzaileak	120121	Disko urratzaile higatuak	0,3
Mahuken iragazkiak	150203	Mahuka-iragazkien aldaketa (arazketa-sistema bide lehorra)	0,570
Erregogorrak	161100	Mantzentze-lanak (aldaketa erregogorrak)	150
Papera eta kartoia	200101	Erabilitako paper eta kartoiaren hondarrak	0,5
Zura	200138	Moldekatzea (zura-ereduak)	0,2

a) Ebazpen honen B.3 atalak hondakinen kudeaketarako printzipio hierarkikoei buruz dioenaren arabera, labeetako xehekiak, berreskuratzaile mekanikoko xehekiak eta hareak baliotu egingo dira eta ez dira zabortegian utziko. Baliotzea ez beste modu batera kudeatzen badira, Sailburuordetza honen aurrean aurkeztu beharko da proposamena. Hondakin horiek ispilu-sarrera dute gaur egun indarrean dagoen hondakinen Europako zerrendan. Bada, horiek hondakin ez-arriskutsutzat hartuko dira, baldin eta hondakin horiek lehenengo aldiz ebaluatu baino lehen karakterizatzen badira; karakterizazio horren emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidali beharko dira, proposatutako kudeaketa egokia ote den egiaztatzeko. Baldin eta hondakina arriskutsua dela ezartzen bada, B.3.1 idatz-zatian jasotako xedapenak aplikatuko dira.

b) Sortutako hondakin ez-arriskutsu bakoitzerako Onarpen Agiri bereizi bat aurkeztuko da oraingo kudeaketa (batera biltzea) Onarpen Agiri bakarrean hondakinen bilketa eta kudeaketa hautakorraren oinarrizko printzipioaren kontra baitoa.

c) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu bati.

d) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

e) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituelako agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

f) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

g) Erregistro bat egingo da, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

h) Aurreko e), f) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta g) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Industria de Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak honako informazioa aurkeztu beharko du:

● Egoera likidoan dauden gai arriskutsuak dituzten bidoi guztietan atxikipen-kubetak jartzea, berariazko biltegian nahiz prozesuan egon.

● Argintza-pinturen prozesuan dagoen egungo biltegia lekuz aldatzea, garabiak manipulatzeko gunetik urrun jarriz.

● Erretxin eta katalizatzailearen karga eta deskargarako jarduera-prozedura ezartzea.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak hartu eta instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Halaber, ezingo da 50 dB(A) baino zarata-maila altuagorik egin (egunez nahi gauez, 2005eko apirilaren 25ean onartutako Durangoko Plangintza Arau Subsidiarioetako Testu Arauemailearen arabera) Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industrialdearen kanpo-itxituran neurtuta.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena Zaintzeko Programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak isurien kontrola egin beharko du, informazio honi jarraituz:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	48014879-01	Nodulizazio, desmoldekatze eta granailatze labeen xurgapena	Partikulak guztira (PG)	Urtekoa
			Sufre dioxidoa (SO_2)	Urtekoa
			Nitrogeno oxidoak (NO_x)	Urtekoa
			Karbono monoxidoa (CO)	Urtekoa
			Dioxinak eta furanoak (PKDD/PKDF)	Lehen urtean
2	48014879-02	Harea berreskuratzaile mekanikoaren xurgapena	Partikulak guztira (PG)	Hiru urtean behin

b) 1. fokuarekin lotutako larrialdietako sistemen funtzionamenduaren kontrola (bypass edo antzekoak) adieraziko duen txostena aurkeztuko da.

Gainera, aurretik ezarri bezala, «Moldekatze eta argintza» eta «Bizar-mozte» prozesuetako isurtzeak hartu eta husteko proposamena aurkeztu behar da, bai eta (magnesioa bezalako) produktu kimikoen manipulazioa dela eta kanpoko isurtze barreiatu etenduak gutxitzeko proposamena ere.

c) Aurreko atalean aipatutako aldizkako neurketa guztiak baimendutako kontrol erakunde batek (BKE) egin beharko ditu (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez, zortzi orduan zehar neurtuta; eta dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6-8 orduko neurketa bat), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «Baimendutako kontrol erakundeen gutxieneko txostenaren» arabera egin beharko dira. Nolanahi ere, isurtzeen kontrolek eta neurketa-baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

d) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

e) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio hori eguneratuta egongo da, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
1	Patioko euri-uren isurketa, zepen hoztea eta bulegoetako etxe-erabilera	BBUPak zehaztuko du	Aldizka	Kanpokoa (BBUP)
3	Berreskuratzaile mekanikoaren hozte-zirkuituaren purgatze eta gainezkaldiak	BBUPak zehaztuko du	Aldizka	Kanpokoa (BBUP)
4	Konpresoreen lehorgailuaren kondentsazioa	Hartutako pH-a	Urtean bi aldiz	Kanpokoa
		OEK		
		Solido esekiak		
		Olioak eta koipeak		

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea nola ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publiko Hidraulikoaren 255. artikulua), edo hala dagokionean, kolektorera konexioa egiteko baimena ematen duen erakundeak. Goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira.

d) Isurketak baimeneko baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, B.2.3 ataleko parametro guztientzat ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Isurketan lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen gai arriskutsuak dauden dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan produkzio-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko epean.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea
Ekoizpena	Metal likidoa	t	Metal likidoa	t
Lehengai eta osagarrien kontsumoa	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● txatarrak, ● lingoteak ● ferroaleazioak	t	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● txatarrak, ● lingoteak ● ferroaleazioak	t
	Harea-kontsumoa	t	Harearen lehengoratze-maila	% (t/t)
	Erretxinen kontsumoa	t	Erretxinen kontsumoa / Arretarako harearen kontsumoa	% (t/t)
Energia kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa	m^3	Gas naturalaren kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/Kwh(%)
	Elektrizitate-kontsumoa	Kwh	Elektrizitate-kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/Kwh(%)
	Energiaren guztizko kontsumoa	Kwh	Energia espezifikoa (kontsumitutako energia / metal likidoa)	Kwh/Kwh(%)
Ur kontsumoa	Ur-kontsumoa	m^3	Ur-kontsumoa	m^3/t metal likidoa
Uretara egindako isurketak	Industria-isuriak/Helmuga	m^3	Industria-isuriak/Helmuga	m^3
	Solido esekiak guztira (SEG) (max, min, batezb., lagin-zk.)	mg/l	Solido esekiak guztira (SEG)	mg/l
	Hidrokarburoak (max, min, batezb., lagin-zk.)	mg/l	Hidrokarburoak	mg/l
Isurtze atmosferikoak	Partikula solidoen isuria (max, min, batez bestekoa, lagin kop.) / 1 eta 2 fokuetarako	mg/Nm^3	Partikula solidoen isurtzea	mg/Nm^3
	Partikula solidoen isurtzea	Kg	Partikula solidoen guztizko isurtzea/metal likidoa	Kg/t
	Sufre dioxidoen (SO_2) isurketa	mg/Nm^3	SO^2 isurketak	mg/Nm^3
	Nitrogeno oxidoak (NO_x)	mg/Nm^3	NO_x-aren isurtzea	mg/Nm^3
	Karbono monoxidoa (CO)	mg/Nm^3	CO isuriak	mg/Nm^3
	Dioxina-isurketak/1. fokurako (aldizkako neurketa)	mg/Nm^3	Dioxina-isuriak	mg/Nm^3
Hondakinak	Arazketa-sistemetan jasotako jalkin xeheen kantitatea	t	Arazketa-sistemetan jasotako jalkin xeheen kantitatea / metal likidoa	t/t
	Sortutako Hondakin Arriskutsuen guztizko kopurua	t	Sortutako Hondakin Arriskutsuen guztizko kopurua	t
	1		Sortutako hondakin arriskutsuen kantitatea guztira/metal likidoa	t/t
	Hondakin arriskutsu baliotuak	t	Hondakin arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin arriskutsuak	t/t (%)
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua	t	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua	t
	1		Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua/metal likidoa	t/t

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiapuntuko datuak	Unitatea	Adierazlea	Unitatea
	Hondakin ez arriskutsu baliotuak	t	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin ez-arriskutsuak (gainerako osagaiak, …)	t/t (%)
			Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kopurua / guztizko hondakinak	t/t (%)
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua / urte	Ustekabeko isurketekin lotutako gorabehera kopurua	Kopurua/urte
IKS	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	Bai/Ez Zein/ urtea	Ekoscan/ Urte eta/edo ISO14001/ Urte eta/edo EMAS/ Urte	Bai/Ez Zein/ urtea

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamena ebazpen honen C.6 atalak aipatzen duen ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari gehituko zaio.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilean behin bidaliko dira Uraren Euskal Agentziara (Bizkaiko Ordezkaritza).

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak edo analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, botako diren kutsagarriak eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera, honako hauen aplikazio esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27,5 burdinurtzearen epigrafea), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko neurriak eta jarduerak.

Aurkeztutako dokumentazioan egindako proposamenean ez-ohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, zorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Erabilitako olioak, erregaiak, erretxinak, zepak eta efluenteen arazketako hondakinak, eta orokorrean, fabrikan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hauts-produktuak gordetzeko, iragazkiak dituzten silo itxiak egongo dira.

h) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

i) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

j) Nabeen barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bidaliko da.

k) Hidrokarburoen bereizgailuak aldian-aldian ikuskatuko dira, hondakinak pilatu ez daitezen; dekantagailuetan eta bereizgailuetan metatutako lohiak eta flotatzaileak aldian-aldian kendu behar dira. Hondakin horiek baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio.

l) Bereizgailuan metatutako lohiak, olioak eta koipeak aldian-aldian kendu behar ditu baimendutako kudeatzaile batek. Isuriaren kantitateari eragiteko moduko mailetan metatzea saihestuko da.

m) Hidrokarburoen bereizgailuaren mantentze-lanei dagokienez, ondo garbituko dira eta aldiro bertan metatutako lohiak eta flotagarriak kenduko dira. Baimendutako Kudeatzaileak erretiratuko ditu.

n) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

o) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isuriak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko. Kasu horretan, honako baldintza hauek azpimarratu behar dira:

Estazioan erroilu erako edo gai pikortatuzko, edo antzeko berariazko gai xurgatzailea egongo da, ustekabeko jario edo ihesetan berehala aplikatu ahal izateko.

Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunea isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

Ebazpen honetan deskribatutako jarduerez gain, gasoleoa biltegiratzeko eta manipulatzeko instalazioak behar den bezala isolatuko dira, ustekabeko hausturak edo jarioak, eta abar, gertatzen direnean horiei eusteko.

Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko isuri edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez.

Halaber, prozesuaren funtzionamendu egokiaren ustiapen- eta zaintza-eskuliburua izango da. Aldizka egindako mantentze-lanen eta kontrolen eragiketak, zein antzemandako gorabeherak jasoko dira bertan, eta enpresa espezializaturen bat bertaratzea aholkatzen da.

p) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

q) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

- Gertakari-mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zein ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isuria izanez gero, emaria eta isuritako gaiak.
- Mailak gainditu badira, isurtzeei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Berriro gerta ez dadin aurreikusitako neurriak.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

r) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi-net web orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa

osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.2 («Moldekatze eta argintza» eta «Bizar-mozte» prozesuek sortutako isurketak hartu eta husteko proposamena eta (magnesioa) bezalako produktu kimikoen manipulazioek sortutako isurtze barreiatuak gutxitzeko proposamena); B.2.4 (Araztu eta husteko instalazioak, instalazioan dauden teilatuetatik jaisten diren euri-uren ezaugarriei buruzko azterketa, gutxienez, analisi bat, Erakunde Kolaboratzaile batek egina isurketa-puntu bakoitzerako eta drainatze-sareen eta horietako bakoitzak hartzen duen azaleraren planoa, egokitze-plana exekuzio-epe zehatzak jasoko dituena, aurretik aipatutako azterketan kutsagarri gisa hartzen diren euri-uren aurretiazko tratamendurako); B.3.1 («Aerosol hutsak» eta «fluoreszenteak» hondakinen kudeaketa egokia egiaztatzen duten agiriak); B.3.1 l) (Sortutako hondakin arriskutsuak onartzeko agiriak); B.3.1 k) (Poliklorobifenilo izatearen adierazpena); B.3.1 n) (Sortutako hondakin arriskutsuak erregistratzeko eredua); B.3.2 a) (Sortutako hondakin ez-arriskutsuak erregistratzeko eredua); B.3.2 b) (Sortutako hondakin ez-arriskutsu bakoitzaren onarpen-agiriak); B.3.2 g) (Sortutako hondakin ez-arriskutsuen kontrol-erregistroaren eredua); B.4 (Lurzoruaren kalitatea babesteko baldintzak); C.1 (Atmosferara isurtzen diren kutsatzaileen kontrola, dagokionean, eta isuri atmosferikoen erregistro-eredua); C.4 (Zarata neurtzeko proposamen zehatza); C.6 (Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina); D.1 (Isurketa eta hondakinen sorreraren zenbatespena mantentze-lanetan); D.3 a) y b) (Mantentze-lanen eskuliburua, ikuskapen eta kontrolerako programa); D.3 h) (Biltegiratze-ziurtagirien egiaztapena); D.3 i) (Larrialdi egoeretarako eskuragarri dauden materialen zerrenda); D.3 r) (Suteen aurkako babesaren ziurtagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskaritza-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den egunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak ebazpen honen xede den pieza handi eta ertainen burdin grisa eta nodularraren urtze-jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, horrek onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresari, Durangoko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita; hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 12a.

Ingurumen sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.

I. ERANSKINA

ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak Durangoko udalerrian sustatutako burdinurtze-instalazioaren proiektuari ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduraren barruan ingurumen-organoak jendaurrean jartzeko sustatutako izapidean, bi alegazio-idazki aurkeztu dira.

Ondorengo ataletan egindako analisian agerian jarriko denez, Ingurumen Sailburuordetza honek erreferentziako instalazioaren ingurumeneko baimen bateratua ematerakoan, aurkeztutako alegazioetan proposatutako ingurumen-alderdi guztiak hartu dira kontuan. Horrela, proiektuan jasotako eta ingurumeneko baimen bateratuko prozedura honen bidez osatutako neurri zuzentzaileak, instalazioak sor litzakeen ingurumenaren gaineko balizko eraginak minimizatzera bideratuta daude.

Dena dela, agertutakoek planteatutako hainbat alderdiri erantzun zehatzago bat emateko xedearekin, Ingurumen-organo honek honako txostena osatu du, ondoren azalduko diren ataletan alegazioen edukiak sailkatuz.

1.– Gai orokorrak.

Alegazioak:

«Laburpen ez teknikoak ez ditu hainbat agiri, besteak beste, ingurumen-egoera, isurketak sortzen dituzten iturriak, airera, uretara eta zorura isurtzea aurreikusten dena, teknika erabilgarri onenak, eta prebentzioari, hondakin murrizketari eta kudeaketari buruzko neurriak».

«Jarduera-baimena eta enpresaren jarduera Udaleko udal-planeamenduarekin bat datorrela dioen Hirigintza Txostenaren egiaztagiria ez dira dokumentuen artean agertzen»

Gogoetak:

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Aipatu arauaren 9. artikuluan xedatutakoa betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute, 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. Jarduera horien artean aurkitzen da Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak Durangoko udalerrian garatutako jarduera.

Ingurumeneko baimen bateratuaren eskaerarekin batera jendaurrean jartzeko izapideari begira ulermena errazteko laburpen ez teknikoa aurkeztu behar da.

Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak aurkezturiko laburpen ez teknikoaren kasuan, enpresaren egoera modu orokorrean deskribatzen da eta beraz, instalazio horietan garatzen den jardueraren ezaugarri garrantzitsuenak ezagutzeko aukera eskaintzen du. Agirian jarduera eta instalazioen ezaugarriei buruzko informazioa jasotzen da; ekoizpen-prozesuaren, kontsumoen eta ekoizpenaren deskribapena; ingurumen-alde desberdinak (hondakinak, isuri atmosferikoak eta hondakinak ibilgura); eta instalazioetan azken 3 urteotan eginiko inbertsioak.

Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak eginiko ingurumeneko baimen bateratuaren eskabideari dagokion administrazio-jardunbidean, 2007ko urtarrilaren 30ean, enpresak, 2007ko urtarrilaren 15ean Durangoko Udalak igorritako hirigintza-txostena bidali zion ingurumen-organoari. Aipatu txostenean, enpresaren lursail pribatuan industria-jarduera egiten dela adierazten da. Lursail hori industria-gune pribatu finkatua da. Hiri lurzoru gisa klasifikatua dago hiri industria kalifikazioarekin.

2.– Kutsadura atmosferikoa eta usainak.

Alegazioak:

«Komenigarria dirudi moldekatze eta bizar-kentze gunean ez mugatutako partikulen emisioak xurgatze- eta arazte-sistemaren bidez jasotzea»

«Isurtze barreiatuak: enpresak partikula-isurtze bolumen handia, etenik gabe, sortzen duten kontrolik gabeko foku gehiegi ditu. Atmosferara isuritako partikulen analisian ez da eraginaren azterketarik egiten, instalaziotik gertu dauden guneetan sor daitezkeen immisio-mailak baloratuz».

«Fokuen legalizazioa: eskuragarri dauden agirietan etengabe zehazten da neurketa falta dela edo Fokua legalizazio-prozesuan dagoela».

«Usainak: agirietan, industria-jarduera dela eta isurtzen diren usainekin lotuta gaur egun sor daitezkeen eragozpenak ez dira zehazten».

Gogoetak:

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 11. artikuluak ingurumeneko baimen bateraturen xedea honakoa dela xedatzen du:

a) Baldintza guztiak ezartzea, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren.

b) Kutsaduraren prebentzio- eta kontrol-sistema izatea, hondakinen ekoizpen eta kudeaketaren arloan dauden ingurumeneko baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bilduko dituena, udal-hondakinen eta hondakin arriskutsuen errausketa barne eta, hala badagokio, hondakinen isurketa, ur kontinentaletara isurtzea, saneamendu-sistema osora eginiko isurketak barne, eta lurretik itsasora eginiko isurketak, bai eta kutsadura atmosferikoaren alorrean ingurumen izaerako zehaztapenak ere, konposatu organiko hegazkorrei dagozkienak barne.

Beraz, ingurumeneko baimen bateratuak Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak Durangoko udalerrian garatzen duen jarduerari aplikatu beharreko ingurumenaren inguruko baimen guztiak jasotzen ditu, eta baimen horiek, ibilgura eta saneamendu-sare orokorrera isuriak egiteko baimenari eta hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak sortzeari dagozkie. Gainera, ingurumen atmosferikoa zaintzeari eta lurzorua kutsatzearen prebentzioari lotutako baldintzak eta betekizunak ezartzen dira.

Bestalde, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 22. artikuluak dioenez, baimenak ondoko gutxieneko edukia izango du:

a) Teknika Erabilgarri Onenetan oinarritutako isurtzeko muga-balioak, 7. artikulua jarraituz, instalazioak isur ditzakeen gai kutsagarrietarako, bereziki, 3. eranskinean zerrendatutakoetarako eta, hala badagokio, horiek osatu edo ordezkatuko dituzten parametroak edo neurri tekniko baliokideak.

b) Behar denean, lurzoruaren eta lurpeko uren babesa bermatuko duten aginduak.

c) Instalazioan sortutako hondakinak kudeatzeko erabiliko diren prozedurak eta metodoak.

d) Behar denean, distantzia luzeko edo mugaz haraindiko kutsaduraren minimizazioa bermatuo duten aginduak.

e) Mota guztietako isurketak eta hondakinak tratatzeko eta kontrolatzeko sistemak eta prozedurak, neurketa-metodologia, maiztasuna eta neurketak ebaluatzeko prozedurak zehaztuz.

f) Ingurumenari eragin diezaioketen eta ohikoak ez diren egoeretan (martxan jartzea, isuriak, funtzionamendu-akatsak, aldian aldiko geldialdiak edo behin betiko itxiera) ustiaketaren baldintzen inguruko neurriak.

g) aplikatzekoa den legeria sektorialak ezarritako bestelako neurri edo baldintzak.

Ingurumeneko baimen bateratu honek ezartzen dituen baldintza eta betekizunen artean, Fundiciones San Antonio de Urkiola SL enpresak airearen kalitatea babesteko esparruan bete behar dituenak barne hartzen dira.

Hala, «B.1 Airearen kalitatea babesteko baldintzak» atalean adierazten da instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituztela Ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

Ondoren, instalazioan dauden fokuak identifikatzen dira, bai eta horietako bakoitzean, indarrean dagoen araudi aplikagarriari jarraiki, errespetatu behar diren muga-balioen ezarpena ere. Muga-balioak, beste alde batzuetan teknika erabilgarri onenak jasotzen dituen arauaren 7. artikuluan xedatutakoa jarraituz ezarri dira. Marko horretan, ingurumeneko baimen bateratu hau egiterakoan, 2005eko maiatzeko «BREF Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry» dokumentuaren edukia hartu da kontutan.

Gainera, isurketa-fokuak ebazpen honetan adierazitako kontrolen mende horietako bakoitzaren katalogazioaren arabera daudela adierazi behar da. Kontrol hori, nazioarteko neurketa-arau desberdinak jarraituta kontrol erakunde baimenduak egingo dituzte eta, izatekotan, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako «BKEen gutxieneko txostenean» jasotako gutxieneko edukia jarraitu behar du.

Hala, enpresak hartze- eta arazte-sistemak ezarritako muga-balioak betetzea lortzeko nahikoa direla bermatuko du, hala ez bada, dagozkion egintzak burutuz.

Isurtze barreiatuei dagokienez, Ebazpen honen B.1.2 atalean honakoa jaso da:

««Moldekatze eta argintza» eta «Bizar-mozte» guneko isurtze barreiatu etenduak. Zentzu horretan, aipatu prozesu horietan sortzen diren isurtzeak hartu eta kanporatzeko proposamena aurkeztuko da.

Instalazioaren kanpoaldean isurtze barreiatu etenduak, (magnesioa bezalako) produktu kimikoarekin egindako manipulazioak direla eta. Isurtze horiei dagokienez, aipatu isurtze barreiatuak gutxiagotzeko proposamena aurkeztuko da».

Gainera, Ebazpen honen B.1.4 atalean honakoa jaso da: «Sustatzaileak isurtze barreiatuak hartu edota gutxiagotzeko aurkezturiko aukera desberdinak identifikatuko ditu, hartutako erabakiaren justifikazioa aurkeztuz».

Neurri zuzentzaileak hartzeari esker, usainen sorrera hobetuko da.

3.– Zarata eta bibrazioak.

Alegazioak:

«Zarataren neurriei dagokienez, espedientean jasotako zarata-azterketa eguneratzea beharrezkoa dela uste da guneka antolatutako zarata-mapa eginez».

«Tabira auzoko inguruko guneetan Instalazioak sor dezakeen Zarata Mailaren eraginak ez dirudite nahikoa dokumentatuak eskuragarri dagoen informazioan, aipatu auzoko herritarrek jasaten duten soinu-presioaren mailak ezin baitira argitasunez ikusi».

«Enpresaren inguruetan egon litezkeen dardara-mailak ez dira adierazten».

Gogoetak:

«C.4 Zarataren kontrola» Atalean, ingurumen-alde horri aplikagarri zaion kontrola ezartzen da eta, bereziki, honakoa jaso da:

«Jarduera garatzen den lursaileko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programako testu bateginarekin batera aurkeztuko da».

Azkenik, esan behar da aipatu agiria aurkeztea ingurumeneko baimen bateratuaren eragin-kortasuna aitortzeko bete beharreko baldintza gisa hartu dela.

4.– Uretara isuriak.

Alegazioak:

«Ezinbestekotzat jotzen da produktu kimikoak biltegiratzerakoan ezohiko egoeretan sor daitezkeen euri-ureen jariatzeak zuzenean ibaira isurtzen dituzten euri-uretatik modu argian bereiziak izatea».

«Enpresaren pabiloiak Mañaria ibaiaren ezkerreko bazterrean kokatzen dira, ibaiertzaren zortasun-gunea hartuz eta ibaiko urak gune horretako garapen biologiko arrunta eragozten duten industria-isuriekin aldatuz».

Gogoetak:

«B.2.1 Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena» atalean adierazi bezala, Mañaria ibaira isurtzen diren ur bakarrak teilatuetako eta konpresoreen purgetako euri-ur garbiak direla ikus daiteke. Gainerako fluxuak saneamendu-sare orokorrera isurtzen dituzte. «B.2.3 Isurtzeko muga-balioak» atalean, ibilgurako isurien ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango direla bakarrik jaso da, bakoitzerako zehazten diren gehienezko balioekin: Olioak eta koipeak = 20 mg/l.

Azkenik, B.2.4 atalean honakoa jaso da: instalazioan dauden teilatutik jaisten diren euri-uren ezaugarriei buruzko azterketa aurkeztuko da. Azterketa horrek, gutxienez, analisi bat, isurketa-puntu bakoitzarena eta Erakunde Kolaboratzaile batek egina eta drainatze-sareen eta horietako bakoitzak hartzen duen azaleraren planoa jasoko ditu. Egokitzapen-plana aurkeztuko da, lehen aipatutako azterketan kutsagarri gisa zehaztutako euri-uren aurretiazko tratamendurako exekuzio-epe zehatzak jasoz.

5.– Ingurumena zaintzeko programa.

Alegazioak:

«Ez da TEOetan ezarritako IMBetara egokitzen, gaur egun egiten ari denaren ziurtasunik, atmosferara isuritako kutsatzaileen isurketa-puntuen eta horren Ustiapenaren baldintzen krokisik».

Gogoetak:

Lehen adierazi bezala, ingurumeneko baimen bateratuan honakoak jaso behar dira: mota guztietako isurketak eta hondakinak tratatzeko eta kontrolatzeko sistemak eta prozedurak, neurketak ebaluatzeko neurketa-metodologia, maiztasuna eta prozedurak zehaztuz. Hala, ingurumeneko baimen bateratu hau eman aurretik aplikatu beharreko ingurumeneko araudi sektoriala betez sustatzaileak egin dituen kontrolen aurka egin gabe, baimen honetan sustatzaileak atmosferara eta uretara eginiko isuriei, jardueraren adierazle bereizgarriei eta zaratari dagokienez egin beharreko kontrolak jaso dira.

Jardueran egin beharreko kontrol-multzoa jasotzeko agiri bakar bat erabiltzearren, Ebazpen honen «C.6 Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina» Atalean, honakoa xedatu da:

«Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta Ebazpen honetan proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak edo analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du».

Gainera, aipatu programa osatzen duten azterketa eta txosten desberdinen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara igorriko dira urtero. Horiekin batera, erakunde independente eta ingurumenean espezialista den batek eginiko txostena aurkeztuko da.